

6 mantangorri



AZOKA



LIBURUAK

Izenburuak: 'Izotz zuloa' eta 'Hiru dragoi'.**Testua:** Olatz Bravo. **Marrazkiak:** Ainara Azpiazu eta Alicia de Miguel, hurrenez hurren. **Orrialde kopurua:** 32 eta 28 orrialde, hurrenez hurren.**Bilduma:** Sasi Guztien Gainetik. **Argitaltxea:** Erein.

Olatz Bravo

IDAZLEA

«Askotan, eguneroko gatazka txikiak konpontzeko modua dira ipuinak»

M arko pingüinoaren barne gatazkatxoa eta Ekiñeren ametsak bildu ditu Olatz Bravok *Izotz zuloa* eta *Hiru dragoi* izeneko liburuetan. Haurrentzat sortu dituen lehen bi ipuintxoak Baionako, Iruñeko, Donostiako, Bilboko eta Gasteizko plazetan utzi zituen iazko urte amaieran, eskutik eskura bidaia zezaten. Plazaren batean xistera edo iglu bat ikusten baduzue, Braoren ipuin ibiltariarekin topo egin duzuen seinale. Irakurri eta utzi liburua beste nonbait, beste haurbatek irakur dezan.

Ekiñeren ametsak eta abenturak kontatzen dira 'Hiru dragoi' liburuan.

Abenturazko istorio bat da *Hiru dragoi*. Ekiñe da protagonista. Lu-

rralde miresgarri batean, uharte magiko batean bizi da aitarekin. Triste sentitzen da, ordea, hora delako uharteko haur bakarra. Ekiñek badaki magiarik gabeko lurraldetan haurrak bizi direla, baina hara joatea debekaturik dauka. Triste dagoela ikusirik, hiru dragoi oparituko dizkio aitak. Dragoien magjari esker, Ekainen ametsetan sartuko da, eta, hala, lagun bat izatea lortuko du Ekiñek.

Laguntasunari keinu txiki bat egiten zaio ipuinean.

Bai, laguntasunak ez duela mugarrak eta benetan oso garrantzitsua dela da mezua. Askotan entzuden mezua da, baina, egun hainbat kulturatako haurrak elkarrekin bizi direnez, beharrezkoa iruditzen zait ideia horri garrantzia ematea: muga guztiak

gaindi daitezkeela laguntasuna oinarri izanik.

Nola bururatu zitzazun ideia?

Haurdun nengoela eta ekografiaren zain nintzela bururatu zitzaidan ideia. Horixe izan da nire haurrari kontatu nion lehen istorioa. Garai hartan nuen ilusioa islatzen da ipuintxo horretan, baina ez du abiapuntu jakinik. *Izotz zuloa* ipuinak, berriz, badu gai bat lantzko nahia edo beharra.

Zein da gai hori?

Anai-arreba berri baten etorrerak beste haurrengan sortzen duen ezinezgo eta jeloskortasuna aipatzen da. Familia askotan gertatzen den egoera guztiz normal baina gatazkatsu batia aurre egiteko helburuz sortu nuen istoriotxo hori.

Haurrentzat idazten dituzun lehen istoriotxoak dira. Zer moduzko esperientzia izan da?

Oso gustura geratua naiz egindako lanekin, eta oso gustura idatzi ditut biak. Hasieran, ez nuen argitaratzeko asmorik ere. Orain, liburutegira edo

liburu dendara joan eta liburuen artean zurea ikustea oso polita da.

Gustura ilustratzaileek egin dizuten lanarekin?

Halako istorioetan ilustrazioek sekulako garrantzia dute, eta benetan oso pozik naðo Aliciaak zein Ainarak egindako lanarekin: oso lan txukuna egin dute. Bi ilustratzaileak oso bestelakoak dira, eta baita egiten duten lana ere, baina biena dut gustuko. Igartzen da Alicia de Miguel antzerki mundutik datorrela. *Hiru dragoi* liburuko ilustrazioek Pragako teatro beltzaren kutsua dutela iruditzen zait. Mundu beltz batean argi distiratsuak eta kolorretakoak sortzen dira bat-batean. Ainara Azpiazu, berriz, paregabear da sentimenduak islatzen, eta uste dut samurtasun handiarekin irudikatu duela Marko pingüinoaren barne gatazka.

Bi ipuinak Eskutik Eskura izeneko egitasmoaren ardatz dira. Asko bidaiatu dute zure istorioek?

Jakin badakit plazan jarraitzen dutela istorioek, baina egia da *Eskutik.blogspot.com.es* blogeko partaidetza nahiko urria izan dela. Dena den, bultzatu beharreko egitasmoa dela uste dut. Oso egitasmo interesgarria eta aberasgarria iruditzen zait, irakurleekin lotura berezia sortzeko modua delako eta bizitza berezia edo magikoa izan daitekeela erakusten duen egitasmoa delako. Egitasmoak bere horretan jarraitzen du, eta pentsatu nahi dut denbora kontua izango dela partaidetza hori sustatzea. Beraz, liburu ibiltaria topatzen dutenak egitasmoan parte hartzen animatu nahi ditut.

Beste ideiarik baduzu buruan bueltaka?

Iturri oparoa da ama izatea, etengabe etortzen baitzaizkit ideiak burura. Askotan, eguneroko gatazka txikiak konpontzeko modua dira ipuinak. Oraintxe bertan pare bat ipuintxo lantzen ari naiz, baina nire lehen eleberria ere idatzi nahian nabil, eta horrek energia asko eskatzen dit. Dena den, ez nuke haur literatura alboratu nahi, oso esperientzia polita izan dela.

